

8. JARDUERAK

Funtsezko jarduerak dira negozi-ereduak ondo funtzionatu dezan, bezeroekiko harremanak manten ditzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan egin beharreko jarduerak.

Ondoko hauek dira funtsezko jarduerak: produkziozko jarduerak, arazo-konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak. Gure kasuan, arazo-konponketa da funtsezko jarduera. Izenak dioen bezala, arazoak konpotzeaz arduratzen gara. Honetarako beharrezkoa da ezagutzaren gestioan oinarritzeak eta etengabeko prestakuntza. Gure funtsezko jarduera, animalien zainketa eta ongizatea da.

Jarduerei buruz hitz egitean oso garrantzitsua da kanpoko enpresen esku utzi daitezken eta utzi ezin daitezken jarduerak identifikatzea. Funtsezko jarduerak, ezin dira kanpoko enpresen esku utzi, beti enpresa barruan egin behar dira. Gure funtsezko jarduera animalien ongizatea eta zainketa denez ezin diogu jarduera hori beste norbaiti utzi. Gure enpresaren muina osatzen duelako eta hau babestu behar dugulako, daukagun aktiborik garrantzitsuena delako. Gure ezagutzak animalien zainketari buruz direlako gure negozioaren arrakasta. Aldiz, entrenamendu pistiaren muntaketa edo belardia moztearen jarduera beste enpresa batzuei uzteko moduko jarduerak dira. Enpresak berak egiteak ez diolako balio erantsirik ematen.

Gure kasuan gorago esan bezala funtsezko jarduera animalien ongizatea eta zainketa da. Jarduera hori gauzatzeko albaitaritza, paseak ematea, zaintza zerbitza, ile-apaindegia, heziketa eta Kanean baztertuta aurkitzen ditugun animaliak hartzea bete bahr ditugu. Horrela, gure eskaintza garatu dugu eta bezero potentzialen gana iristi gara beraien leialtasuna lortuz eta harremana mantenduz. Modu horretan, diru-sarrerak lortzen ditugu gure negozioak aurrera jarrai dezan eta garatu dadin.